



Arraunketa

ARAUDI EGOKITZAPENAK

BATELAK

1. PROBAK

Kategoriak	I	C
Lehiaketa motak	Lerroan Banakako erlojuz kontrakoa Binakako erlojuz kontrakoa	

2. TALDEEN OSAERA

Klub batek kategoría berean talde (batel) bat baino gehiago eraman ditzake estropada bakoitzeko.

Kategoria bereko talde guztiak kategoría horretako kirolariz osatuta egon beharko dute. Hala ere, arraunlari guztiak kategoría berekoak izan arren, lemazaina beheragoko kategorietakoa izan daiteke.

Ontzi bakoitzean 4 arraunlari eta patroï bat joango dira.

Kirolari batek ezingo du estropada bereko txanda batean baino gehiagotan parte hartu, alde batera utzita kategoría horretakoa den edo beste batekoa. Xede horretarako, ez da ulertuko kirolari batek estropadan parte hartu duela kirolari bat ordezeko moduan ageri bada izena emateko orrian. Patroïek ez dute muga hori izango.

Gipuzkoako Batelen Ligako estropadetan, kirolari batek ezingo du klub berekoak ez diren taldeetan (bateletan) parte hartu.

Taldeak mistoak izan daitezke. Talde mistotzat hartuko dira klub bereko kirolariz osatutako taldeak genero eta/edo kategoría desberdineko kideez osatuta daudenean.

Talde mistoak, estropadako sailkapenean azaldu arren, ez dute punturik jasoko Gipuzkoako Batelen Ligako sailkapenerako.

Kategoria baten barnean, talde misto batek parte har dezake estropada batean eta taldekideak kategoría bat goragokoak izan daitezke. Infantil kategorian parte hartzen duen talde (batel) batean infantil edo kadete kategorietako arraunlariak soilik ari daitezke, baina aitzitik, kadete kategorian parte hartzen duen talde misto batean ezingo dira infantilak sartu.

Estropada batean parte hartzen duen talde mistoan gutxienez bi (2) arraunlari egon beharko dira parte hartzen duten kategoriakoak.

Patroïei dagokienez, goragoko kategorietan parte hartzeko aukera izango dute, ez beheragokoetan.

3. PUNTUAKETA SISTEMA

Gipuzkoako Batelen Ligan kategoría bakoitzeko sailkapena puntuazio sistemaren bidez egingo da. Horretarako, kontuan hartuko da klub bakoitzaren batel guztiek estropadaz estropada egindako postuak, eta artikulua honetan adierazitakoa.

Estropada eta kategoría bakoitzean puntuazio bat emango zaio parte hartzen duen batel bakoitzari. Ligan izena emanda dagoen batel kopurua adinako puntuazioa emango zaio kategoría bakoitzeko irabazleari. Hurrengo taldeei emango zaien puntuazioa erregresiboa izango da, hau da, estropadako sailkapenean aurretik gelditu denak baino puntu bat gutxiago jasoko du hurrengoak, eta horrela azken sailkatuta iritsi arte; hark, partaiderik egotzi edo kanporatu ez bada behintzat, puntu bat (1) jasoko du.

Arraunketa



ARRAUDI EGOKITZAPENAK

Estropadako Epaimahaiak edo Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epailen bakarrak erabakitzen badu batel bat egozte edo kanporatzea, puntu bakar bat ez du jasoko.

4. ARAUDI ALDERDIAK ETA ALDERDI TEKNIKOAK

4.1. - Txandak prestatu, irteera hurrenkera eta kale zozketa

Antolakuntzak erabakiko ditu txandak eta irteera hurrenkera, behin izena emateko epea amaitzen denean, eta parte hartzeak diren klubei jakinaraziko zaie.

Txandak egiteko edo irteera hurrenkera zehazteko, Gipuzkoako Batelen Ligako sailkapena - jardunaldia jokatzeko den unekoa- hartuko da kontuan.

Gipuzkoako Batelen Ligan izena eman gabe dauden talde mistoak edo bestelako taldeak lehenbiziko txandetan sartuko dira, eta estropada erlojuaren kontrako bada, berriz, aurrena aterako dira. Lerroko edo binakako erlojuaren aurkako estropadetan, kaleak zozketa bidez banatuko dira jardunaldiaren aurretik egiten den bileran. Antolakuntzaren edo hark izendatzen duen ordezkariaren egitekoa da zozketa nola egingo den erabakitzea. Antolakuntza, estropada bakoitzerako izena emanda dauden taldeak kontuan harturik, eta kategoria bakoitzeko txandak egoki banatzeko, txanda bakoitzean gutxienez hiru batel izan daitezkeen bermatzen ahaleginduko da.

Txanda bakoitzean klub desberdinetako batelak ariko dira, atal honen 2. paragrafoan ezarritakoa betez.

4.2. - Estropada bakoitzaren aurreko bilera

Estropada hasi baino ordu eta erdi lehenago (lehen kategoriako lehen txanda hasteko ordua kontuan harturik), ordezkarien bilera egingo da antolakuntzak adierazten duen lekuan.

Estropadaren aurreko ordezkarien bileran, Estropadaren Epaimahaiko Lehendakariak estropada bakoitzerako egoki iritzitako agindu eta jarraibideak emango dizkie klubetako ordezkariari. Agindu edo jarraibide horiek behar sartuko dira indarrean eta nahitaez bete behar dituzte, bai parte hartzen duten ontziek bai partaide diren pertsona guztiek (ordezkari, teknikari, kirolari eta abar).

Jardunaldi bat jokatu behar den egunean kausa objektiboak direla eta, bereziki estropada eremuaren egoerarekin lotura dutenak, eta zentzuzkoena aurreikusitako modalitatean estropada ez jokatzeko bada, Estropadaren Epaimahaiak estropada beste modalitate batean jokatzeko erabaki dezake (erlojuaren aurka, txanda murriztuak, estropada eremua murriztu eta abar) betiere partaideen segurtasuna bermatze eta baldintza bertsuetan aritze aldera. Estropadaren Epaimahaiak hasiera batean jokatzeko zen estropada aldatzea erabakitzen bada, izenda emanda dauden taldeak ez dira parte hartzetik salbuetsita geratuko. Gipuzkoako Batelen Ligako estropada bat jokatzeko zen modalitatean jokatu behar ez bada, Estropadako Epaimahaiak jakinaraziko du ordezkarien bileran.

4.3. - Batelak pisatzea

Ontziak pisatzeari buruz araudiak (Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Araudia, 68. artikulua) ezartzen duena betetzeko, bateletan ez da lastarik izango; hau da, gutxienez pisua izateko jarri behar den gehigarria batelean finkatuta joango da, zuntzez eta erretxinez estalirik.

4.4. - Patroiak pisatzea.

Emakumezko patroiek gutxienez 50 kg pisatuko dute.

I Infantiles
C Cadetes
M Masculino
F Femenino

Arraunketa



ARAUDI EGOKITZAPENAK

Gizonezko patroiek gutxienez 55 kg pisatuko dute.

4.5. - Interkomunikazio sistema

Ezingo da inolako gailu elektronikorik edo bestelako baliabide teknologikorik erabili ontziko kideei zuzeneko edo zeharkako agindurik edo aholkurik emateko.